



Funtsezko elkarteak

Gure enpresa aurrera eramateko, kooperatiba eredua aukeratu dugu, erakundearen jabetza bazkideena da eta bere kudeaketa demokratikoa da. Bazkide guztiek eskubide eta eginbehar berdinak dituzte eta irabaziak beraien artean banatzen dira.

- Kooperatibistok gure lana eta dirua jartzen dugu enpresa aurrera eramateko. Langileok arropak diseinatu, ekoiztu eta saltzen ditugu. Ez dugu kooperatibista ez den bat lan egiteko kontratatuko.
- Lehengaien hornitzaileak behar izango ditugu (ohialena, tintarena, hariarena, papera patrioiak egiteko, argindarrarena, ...)
- Ekoiztutako produktuak saltzeko, gure denda fisikoetan eta onlinekoetan saldu arren, beste salmenta puntu batzuk edukiko ditugu. Horretarako, garraio enpresa batekin adostuko dugu banaketa egiteko. Bestalde, atzerrian ere saltzeko asmoarekin, beste salmenta putu batzuekin batuko gara.
- Bezeroek enpresa hau ezagutu dezaten, publizitate bulego bat ere kontratatuko genuke.
- Negozioa optimizatzeko, kooperatiba bat denez, bazkide guztiok lan egingo dugu behar den arloan.
- Arriskua murrizteko, eskariaren arabera ekoiztuko da beraz, eskaintza ez da izango altua. Beharrezkoa izatekotan, ekoizpena handituko litzateke.